

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barrero esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euzkotarren ontzija
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxar-
sora; 136. orrialdea. - Bilbo, 1931)

L
A
U
A
X
E
T
A

3

o
l
e
r
k
i

D
E
L
A

E
T
A

a
z
t
e
r
k
e
t
a



Λόγος δυνάστης μέγας ἐστίν
(Gorgias, "Helena" 8-9)

7

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος



Euskal Biblioteka Labayru



1011675

LITERATURA / N. 1276

12632

JON GOTZON ETXEBARRIA

"LAUAXETA" DELA ETA

εις τήν ἑλευθερίαν
τῆς πατρίδος

liburu-sorta
GERNIKA



©Jon Gotzon Etxebarria

Legezko Gordailua:BI-1908-88


I.S.B.N.:84-404-3169-4

LANKOPI.-Colón de Larreategi,16-BILBAO



"BIDE BARRIJAK"
(azala)

Bilbo, 1931
(14'5x22 zm.)



Añals-beran

Urktaga'tar Estepan
Lauaxeta

MCXXXV

"Añats-beran"
(barruko azala)
Bilbo, 1935
(11x14 zm.)

"JADETSI-EZIÑA"
OLERKIAREN
TEXTO-AZTERKETA

Deustu-ko Unibertsitatea
"Euskal Filologia" 2. ikasturtea
Agustin Arrieta irakaslea zela.

Jadetsi-eziña

Zeure mosubak diran laztanak!
 eztizko lorak yatzuz espanak.
 Larrosa orreïn orri ganetan
 ibilli nai dot, loreil onetan.

Laztantzen dodaz sasi-lilijak,
 eta matzaren urrezko orrijak.

Mitxiletatxu haten antzean
 artega nabil latxin ganian.
 Zeure larrosa politak baña
 ezin laztandu, neska liraña.

Eragozpenak banantzen gabez,
 eta mosuba dil atsekabez...

Al ditubazan lora gaxuak
 laztantzen ditu geure goguak:
 ¡Baña dil, leitzen daben lorarik
 bere bixitzan jadetsi barik!

("Bide Barrijak", 26. orrialdea)

1931. urtean argitaratu zuen Lauaxe-
 ta-k bere lehenengo olerki-idaztia.
 Bazekien berak bide berriak urratzen
 zetorrela euskal olerkiaren alorrean.
 Izenpurua bera eta azalerako aukera-
 tu zuen apaingarria lekuko, batetik.
 Bestetik, aldamenean ipini zuen erdal
 itzulpena ere hortaraxe dator: euskal-
 dun erdizkakoei laguntzera; bide be-
 rriotan gal ez daitezen, inguruari da-
 rion ederra asma eta dasta dezaten
 lagungarri.

Zer esanik ez, itzulpenetan, eta oler-
 ki-itzulpenetan areago, jatorrizko i-
 datziaren gun samurra lardazkatu ohi-
 da. Hala ere, bapikatu egiten duela La-
 uaxeta-k deritzagu, bigarren liburua-
 ren ohar txoan dioenean: "Con esta ho-
 ja adicional no pretendemos más que
 ayudar a los poco versados en el idi-
 oma vasco. Para el crítico extraño na-
 da dicen estas versiones, hechas sin

uidado. Mi idioma nacional es el eus-
era. Bien se puede perdonar las inco-
recciones que en castellano se me es-
apen, puesto que no es pequeño mérito
onocer medianamente una lengua extra-
a. El Autor. ("Arrats-Beran", Bilbo; ge-
igarrizko orritxoetan datorren itzul-
enaren oharra; 1935. urtea)

Erdi egia hitzok. Badakigu Urkiaga-k
derki zekiela erdaraz. Hil aurretik
rdaraz ere neurritzak ondu bazituen,
uskaraz idazteari ekin baino lehena-
o, gazte-gaztetan, bere lehenengo oler-
iak erdaraz egin zituen, Andima Ibiña
abeitia-ren aitorrari jaramon ezker-
"EMAN", Caracas). Ikaskide euskaltzale
ta abertzaleen eraginez eta bultza-
az jarri zen euskaraz egitearen alde-
o. Ohar horien esanak literatura alde-
ik egia badira, zati bat bai behintz-
t, aberriarenganako maitasun suharrak
alkieraziak direla antz eman diezaiog

kegu behingo batean. Egia zati bat e-
re badutela ziur gaude: euskararen be-
rezitasunak, esakera-joskeretan, eta o-
lerkiaren beraren izatea ere ez bide
dira lagunik onenak originalaren ze-
haztasun guztiak beste hizkuntza ba-
tetan eman ahal izateko; hoskidetza e-
ta berak dakarren higidura, barne hi-
gidura, eta batez ere irudietan idarog-
ki nahi duguna, ezin dira bere osoan
aldatu beste hizkuntza batetara. Hiz-
kuntzaren sentikortasuna berdina ez
delarik, pertsonaren sentiberatasunak
bestelako neurriz hartzea eskatzen
digu. Hala ere, Urkiaga poliki saiatu
zen olerki bakoitzaren zirrara erda-
raz agerrarazten. Zati garrantzia
baino gehiago zati osotasuna egoki-
ro bihotzetaratu nahi die irakurle
erdaldunei.

JADETSI-EZIÑA

("Bide Barrijak", Bilbo, 1931, 26garren orrialdea)

Lehenen eta behin esan dezagun bere urreneko liburu hontan maitasuna eta maitasunaren atzeak azaltzen dabilki-ula olerkari gaztea. Andrarenganako maitasuna eta ederrarenganako maitasun gozo samurra ditu lagun orrialde-rik gehienetan. Igarri ere egiten zaio arrietan barrena: "Zer dodan eztakit, aña gexo nago:/gorputza aul daukot, gogua ariago/Arratsari nago..., itxas-ardiñari,/lanari el ezin, soillik ame-sari." (Gexorik nago, lehenengo eta az-tenengo ahapaldiak).

Bigarren idaztian ("Arrats-Beran", 19-35), gihartsuago dagerkigu alde hortatik: ederra ederki eta trebeki azaltzen, aberri maitasun sutsua zabaltzen eta maitasunaren bitxia jostari kantatzen.

Hona hemen aukeratu dugun olerkiaren

azterketa:

1
TANKERA

10-A, 10-A/10-B, 10-B

10-D, 10-D

10-E, 10-E/10-F, 10-F

10-G, 10-G

10-H, 10-H/10-I, 10-I

2
AHAPALDIAK

Hiru ahapaldi launa neurtitzekoak eta tartean beste bi ahapaldi bina neurtitzekoak.

Ahapaldiak eta neurtitzak aukeratzekoan badirudi Lauaxeta, osoan harturik, euskal tradizioari baino gehiago inguruetako bere gogokoenen eraginari zordunago zaiela. Hortan ere bide berrietan abiatu gura, non-bait. Edo hortan aitua zelako edo euskal tradizioaren neurtitzak, askotan, hizkuntzaz eta irudiz eskasago

ruditu zitzaizkiolako berak helburu
zat jarri zuen mugaraino jotzeko as
noz.

3 HOSKIDETZA

Bestalde, hoskidetza ezin dugu estu-
estu hartu lehenengotatik: JADETSI-E-
ZINAREN lerroetan lehenengo eta biga
rren ahapaldien amaiera antzekotsuak
hoskidetzat har genitzake: laztanak-
ezpanak/liliak-orriak edo eta gane-
tan-orretan/antzean-ganian... Ezber-
din jotzen baditugu ere ez gabiltza
hain oker. Egileak berak halaxe egi-
ten bait du beste idaztune askotan:
ederrari-bateri (Iluntzeko Ixarra) ez
dira hoskide aurreko eta ondoko ber-
tsoei so ezkerro. Beste batzuetan, be-
rriz, hoskide gerta daitezke, han-he-
menka. Puntu urruna, bertsolarien hi-
tzez esateko, onartu egiten duelako,
noski. Sinalepha kontuan, berdin, ez
du lege esturik: batzutan egin eta

15
beste batzutan ez. Hori bai, Arana-ren
adibideetan oinarritzen da egin ahal
izateko eta egin ez egiteko, beti. Ara-
na-ren bidetik dabil, ez Arana-ren u-
rraskide, baina. Euskararen berritze-
garai hartan, hitzetan bezainbateko
askatasuna hartzen zuten neurtitze-
tan ere idazle askok.

4 TRADIZIOA

Norbaitek arpegira bota zion ez zu
ela ongi ezagutzen euskal kantutegi-
a. Bestela jardungo zuela ezagutu ba-
lu. Ez omen da egia guztiz; Ibiñagabe-
itia-k dioskunez, ezagutu egiten zu-
en, eta ongi ezagutu ere, Azkue-rena
eskuetan erabiliz. ("EMAN", Caracas)

5 ETENA

Etena beti egiten du bere lekuan:
hamar silabatako neurtitz hauetan

5
5garrenaren ondoren.

6
SINALEPHA

Sinalepha honetara dagi olerki hon-
tan, Arana-ren aholkuari jarraituz, nos
ki:

BAI: zeure, orrein, loreil, urrezkoorri
ak, zeure, geure, leitzen.

EZ: antzean, ganian, moduba, gaxuak, go-
guak.

7
EUSKARA

Aldiko berritzearen arauera baditu
zenbait berezitasun bere euskaran: mo-
suBak, liliJak, orriJak, ganIan, dituBa-
zan, gaxUak, gogUak, biXitzan.

Euskalki baten bereizgarri izan ba-
rik euskal idazle askorengana hedatu
zen joera ere nabari da, aditz sinte-
tikoarena, alegia: dil(ilten da-ren or
dez). Egia esan, Lauaxetak erruz dara-

17
biltza adizki hauek. Eta batzuetan ha-
lako bizkortasuna edo sendotasuna ema
ten diote neurtitzari, ezbairik gabe.
Batzuetan beharrezkoak egiten zaizki-
o, dakarren idaztankerari uko egin ga-
be neurria zehatz gordetzeko.

Bestalde bizkaiera hutsa da bere eus-
kara: nai aski erabiltzen da Bizkaian
gura-rekin batera. Loreil aldiaren go-
goko hitza maiatzaren lekuan. Eta ditu
bazan hori ere nahikoa ohitua bizkai-
eraz. Bizkaierazko eta osterantzeko
pluralgilea, biak nahasi: DITuaZan.

Gabez adizkia ere gaitue-ren ordez.
Gitxi entzuten da, baina logikoa era
berean euskalki horren barruan eta
noizbeinka bederen entzun egiten ei
da. Gainera, oraingoan neurriak eska-
tzen du silaba bat gitxiago.

8
HIZKUNTZA

Hizkuntza aldetik erraz-erraza du-

u olerkia. Jatorra eta txukuna. Zeure
mosubak diran laztanak!: Harrimena eta
bralpena erakusteko berebiziko esa-
era bitxia.

Eztizko lorak yatzuz ezpanak. Berau e
e, bere laburrean ezin hobeto dator
ahi duen metaphora agertzeko. Yatzuz
ortan dago bilduta esakeraren esangu
a indartsu guztia.

Larrosa orrein ganean esan zezakeen
uskara jatorrean. Alabaina, orri gane-
an esanez, hizkuntzaren zentzun adie-
azkorra hobeki lortzen du. Eta gaiari
dagokion orri ainiztasuna ere biziro-
go aditzera ematen.

Loreil onetan. Ez du esan maiatza de-
rik. Hala ere, ezpainen eztizko loreak
kusi eta maiatza bihurtu zaigu oler-
iaren giro gozoa.

Aliterazioak ugari ditu, Lauaxeta-k
arri egiten dakien bezala eta, egia,
endotasuna eta doinu-goxotasuna ema

ten dio horrek bertsoari, irakurlea o
latu baten gainean legez neurritzar-
en azken-hondartzara bigun bigun era
manaz: Larrosa orrein orri...urrezko
orriak...artega nabil latxin ganian.
..geure gogouak...bere bixitzan...

9

OLERMENA

Kanpoko gauzakien eta barruko senti
penen deskripzioa gerorako utzita,
batbatean, ezeri itxaron gabe, irakur-
lea astindu guraz edo hasten zaigu o
lerkaria gihartsu eta gogotsu: Zeure
mosubak diran laztanak! Eztizko lorak
yatzuz ezpanak. Irakurlea erne eta a-
di jarri ondoren hasiko zaigu hitzok
zeri dagozkion esaten eta hitzoi zer
dagokien agertzen. Bigarren, zer jade-
tsi nahi duen: ibilli nai dot, loreil
onetan. Aparteko pentsakizuna legez:
Laztantzzen dodaz sasi-lilijak, / eta

atsaren urrezko orriak. Olerkariaren
arne-giroa ezagutarazteko edo.
aiatzatza, loreila zergatik den eta lo-
eil hau nolako ederra agertzen den
san ondoren bere burua dakar pertso
aia nagusi moduan, mitxeleta baten i
udipean. Mitxeletatxu dio. Bai, noski,
urrean duen ederrarekiko ezereza da
era. Artega nabil latxin ganian. Hala
e ibiltzen dira mitxeletak loreeta-
a heldu guraz, batera eta bestera, ar
tega legez.

Beste aparteko batean eragozpenak e
a mosuaren hiltzea aipatzen du gero.
Gura denekorik ezin eta al ditubaz-
an lora gaxuak/laztantzen ditu geure
ogruak...

Eta azkenik hil egiten da (gogoa, nos
i). Lehenago mosua hiltzen da, gorago
o ahapaldian. Eta gogoko duena lortu
abe hiltzen delako, EZIÑA bihurtzen
a hasierako. JADETSI nahia: BERE BIZI

TZAN JADETSI BARIK!

21

10
PERTSONAIAK
PENTSAKIZUNAK

Lehenengo ahapaldian Maitea (beraren
ederra) zen ardatza. Bigarrenean, maita
laria, mitxeleta antzerakoa. Eta hiru-
garrenean, maitalariak oro, guztiekiko
gertaera da eta. Lehenengoan bere gu-
raria azaltzen digu. Bigarrenean bere
ezina. Eta hirugarrenean, guztien ezi-
na, lege orokorra, itzuri ezineko lege
garratza: baña dil... bere bixitzan ja
detsi barik.

Hona hemen eskema batean bezala, o-
lerkiaren hezurdura eta giltzak:

11
ESKEMA-SINTESIS

(neurritz bakoitzean pentsakizun eta
esaldi oso bana, olerki guztian bat
ere hutsik egin gabe)

1a	10-A	ardatz nagusia	MAITEAREN EDERTASUNA	Zu
	10-A			
2a	10-B	"	MAITALARIAREN GURARIA	Ni
	10-B	"		
3b	10-D	"	MAITALARIAREN EKINBEHARRA	Ni
	10-D	"		Zurekiko
3b	10-E	"	MAITALARIAK GURARIA BERE GURA	Ni
	10-E	"		
	10-F	"	MAITEAREN EDERRA EZ ESKURA	Zu
	10-F	"		

4b	10-G	"	MAITALARIAREN ETSIBEHARRA	Zu
	10-G	"		Nirekiko
5b	10-H	"	MAITALARIAK ORO AHAL DUENTXOA	Gu
	10-H	"		besteeki
	10-I	"	AZKEN GARRATZA.BIZITZA GUZTI-	ko
	10-I	"	AN BAT ERE LORTU GABE,HIL EGI	
			TEN GOGOA.NAHIA ETA EZINA.LO-	
			REAREN EDERRA ETA GOGOAREN HE	
			RIOTZA.	
				Bestea
				gureki
				ko.

Berebiziko lan zehatz eta sakona, nire ustez.



Irakasleak erantsi zidan ohartxo honi esker gorde
nuen lana, beste askoren antzera bota barik.

—)

LAUAXETA ETA KATULO

("Lauaxeta" eta Latin-olerkariak)

IDATZ ETA MINTZ

13/14

Lauaxeta gizon ikasia genuen. Bere ga
aiko literatura-joerak, Frantziakoak,
saterako, ez ezik, antxinako klasikoen
ortze-lanak ere bai ezagunak zituen. Ez
de zuen alferrik egin bere apaizgai
enborako ikasketarik.

latinezko olerkariak noraino ezagutz
a zituen? Ezkutu samar gelditzen zai-
a arazoa. Normalean, klasikoak ikaste-
koan, apaizgai-etxeetan, autore batzu
rusten dira bereziki: Bergili, Horati
a holakotsuak poesi-arloan. Beste ba
u, nahiz eta Erromako literaturan
ndiak izan, edo ez dira bat ere azt-
tzen edo gain-gainetik soilik: Katu-
, Tibulo eta abar.

aur Lauaxeta-k Katulo-ren olerkitxo
tekin duen antza edo gaiaren berdin
suna ikertuko dugu. Katulo-ren neur-
tzak, oraingo hontan, gitxi eta labu-
ak dira eta ez ezagunenetarikoak. O-
zko antologietan normalean agertzen

ez diren horietakoak. Beraz, uste iza-
tekoa da hor Lauaxeta eta Katulo-ren
olerkien arteko berdintasuna koinzi-
dentzia hutsa dela.

Dena den, jakingarria da eta, hor do-
az bioen textoak eta komentario la-
bur bat.

KATULO

LXX

Nulli se dicit mulier mea nubere malle
quam mihi, non si se Iuppiter ipse pe-
tat,
dicit: sed mulier cupido quod dicit a-
manti
in vento et rapida scribere oportet
aqua.

(itzulpena bertsoz)

Ez omen beste inor maiteko,
nire kutunak dio, ni ezik;
Jupiter bera eske baletor
ere. Irrikaz dagoelarik

emakumeak Maitaleari
esaten dion dena, damurik,
haizetan eta ur lasterrean
ipini behar da idatzirik.

LAUAXETA

Bijotzean

Lorategiko edur zurijan
irarri zendun neure irudija.
Axia eldu ta egal otzez
autsitu eban gustija.

Larrosa baten orri ganian
idatzi zendun ixen maitia:
udea eldu eta eguzkijak
igartu eban lorea.

Neure gorputza esku miakaz
marreztu zendun are ganian:
etorri ziran olatu urdiñak
atzindu eban unian.

Beti-betiko iraun dagijan
badakixu non sakon irarri?
¡Bijotz barruban, maite kutuna,
maitasun izkiz idatzi!

("Bide Barrijak"; 64. orrialdea)
Lehenengo eta behin esan dezagun Ka-
tulo benetako maitaleaz ari dela; bere
Lesbia kutunaz, alegia. Lauaxeta, berriz,
beste askotan bezalaxe, bere ametsezko
andreak idazten ditu neurtitzok.

Eskematik ageriko denez, Katulo-k la-
burrago idazten du; gainera erdi jola-
sez edo erdi ironiaz; esperientziak e-
mandako eskarmentuz. Lauaxeta-k, oster-
a, bero-bero, maite-garrez, ohi duen beza-
la, eta luze-luze, heltzeko zen maitas-
un handi hura igurikatuz beti. Katulo-
ren aipamenak eta pentsakizunak labur
zehatz eta hotz.

KATULO

LAUAXETA

mulier mea (nire an-
drea)

maite kutuna

cupido amanti (irri-
kaz dagoen maitale-
ari)

irarri zendun
neure irudija...

KATULO

LAUAXETA

idatzi zendun i-
xen maitia...

Neure gorputza
esku miakaz/marr
eztu zendun...

Beti-betiko ira-
un dagijan/bada-
kixu non sakon i
rarri?/Bijotz ba
rruban,maite ku-
tuna,/maitasun
izkiz idatzi!

ietan gizon maitalea bere emakumea-
i buruz hizketan)
ribere oportet(i-
tzi behar da)

irarri...idatzi..
marrastu(iraun)..
irarri...izkiz i-
datzi...

vento(haizetan) axia eldu...autsi
tu eban guztija.

KATULO

LAUAXETA

rapida aqua(ur las- olatu(ur)
terrean) unian(laster)

Irudiok,urarena eta,sarri agertzen
dira beste erdal olerkari askorengan,
gauzen joan-etorri azkarra eta iragan
korra adierazteko.Hona hemen gaztela-
niazko Miguel Hernández-en bat:

Escribí en el arenal
los tres nombres de mi vida:
vida,muerte,amor.

Una ráfaga de mar,
tantas claras veces ida,
vino y los borró.

Nik antxina argitaratu itzulpenean:
Bizitzako iru izenak izkiz
irar nebazan hondartzan:
bizi,erio,maitetasuna.

Hainbat argizko alditan
joandako itsas-ukaldia ager
ta ezabatu zituan.

Hor ere bai, "ráfaga de mar" hortan,
izea eta ura. "Rapida aqua"-ren ordez
lo euskarazko "Olatu-unian"-en ordez
izearena, "ráfaga de mar". Eta badaki-
a "ráfaga" horiek arin eta azkarrak i
aten direla. Gainera, beraren ekintza
anpezkoa: vino y los borró. Ekintza be-
ngo batean gertatzen dena: latinezko
rapida" aqua-rena eta euskarazko ola-
nak "unian".

Hik itzulpenean, neurriak beharturik,
rar" esan nuen. Latin-gaztelaniazkoen
scribere-escribí" eta euskarazkoaren
aldizko "irarri". Bestalde, Katulo-k
hutsa aipatzen duen tokian espaino-
k "arenal", euskaldunak "are ganian".
uaxeta-k "autsitu", Hernández-ek "bo-
ó" eta neure itzulpenak "ezabatu".
zkenengo egunotan, Etxahun-en bertso

bilduma (Arbelbide-k prestatua) irakur-
tzen ari nintzela, horra hor non aurki-
tu dudan zuberotarraren bertso bat, ha-
rira datorrena:

Eia zertan hizan hiru lan hoietan.
Ari hiz izkibatzen huraren gañian,
Azkarki traballatzen bena auherretan.

(Eihartxe eta Miñau; 10. ahapaldian)

Elkar, 1987.

Uste dut, hontan Lauaxeta Katulo-ren
zordun dela ezin dela probatu, ezta
Hernández latinezko egilearena ere. Hi-
rurok (laurok, Etxahun barne), bakoitzak
bere aldetik eta bere erara, erakusten
digute giza-sentipenak maitasun kontu-
an berdintsuak direla eta gizonek eu-
rok azaleratzeko garai guztietan iru-
di antzekoak edo berdin samarrak era-
bili dituztela.

(11x16 zm.)



lauaxeta

Laukiniz'ko
Urkiaga'tar Estepan

"Lauaxeta"
(1905 - 1937)

Irudimen bizi, osora bertauko Olerkaria

(Lauaxeta-ren omenez neuk ateratako txartel postala)

LAUAXETA ETA HORATIUS

"EXCERPTA" 5. gehigarria.

Neguko gaba

Errenteria'tar Gorgoni'ri bijotzez.

Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.

Ibarretan edur zurijak
dagijez ixara barrijak.

Odeizko yantzijan dator negu latza:
betiko gorubaz edurren matatza
eunduten diñardu ortzijan.
Ameslari lerrak mendijan...

Orri-ikararik ez lertzun ta urkijetan,
Garrak dirdir-begi suteko tresnetan.
¡Axè'otzoi, ua hasora,
ipuin zarrak betorz suteral!

Pertza albuan, dantzan, Muru'ko sorgiña,
egazka Anboto'ko andere ziztriña.
¡Lua betor umeen begira,
amets-zitala, ua mendira!

Gorbeyan murraka axe eta edurra:
¡Oi yakun samurra, suteko murmurra!
Artega su-motots bixijak,
yantzian mamu gorriz yantzijak.

Ipiñi egurrik naiko sukaldian;
sugarrak dirdira dagijan artian
eztago edurren bildurrik.
Ez ixan otzen ardurarik...

Egun obiaren deya da neguba;
itxaro barik ez makurtu buruba.
Gau begitan dator eguna,
zoritxar altzuan, zoruna.

Asaben sutian piztu urrezko garra,
ta goguan, bixitz-arau dan indarra.
Aberrijan txadon donia
AREITZ-suba dagon sutia.

Or, negu latzeko gau-ordu luzeetan
aintzeko itz-sakonak, idazti zarretan,
daurkiz gogo ameslarijak.
Asaben eredu garbijak...

Poztu, ta bijotzak ez euki urduri;
gaste ule baltz gara, ez zar ule zuri,
Bijarkua itxi etorrijari,
eta yantzian ta abesten ari.

Bixitza onetan ainetza da oro,
zadorrik, arren, ez egixu nai idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde-ona billau gauzetan...

Ara edur zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldi lats gurenak.
Itxarorik ez urrun jaurti,
billau bixitza onen neurri.

Piztu su-gorrija soña berotzeko,
ta zartzaro-leunak edurrez beteko
daskubenerako buruba,
ipiztu, arren, maitasunsubal!

AD THALIARCHUM.

Vides ut altâ stet nive candidum
Soracte, nec jam sustineant onus
Silvæ laborantes, geluque
Flumina constiterint acuto?

Dissolve frigus, ligna super foco
Largè reponens; atque benigniùs
Deprome quadrimum Sabinâ,
O Thaliarche, merum diotâ.

Permitte Divis cætera, qui simul
Stravere ventos, æquore fervido
Depræliantes, nec cupressi,
Nec veteres agitantur orni.

Quid sit futurum cras, fuge quærere; et
Quem fors dierum cumque dabit, lucro
Appone: nec dulces amores
Sperne puer, neque tu choreas.

Dóneq; virenti canities abest
Morosa. Nunc et campus, et aræ,
Lenesque sub noctem susurri
Compositâ repetantur horâ.

Nunc et latentis proditor intimo
Gratus puellæ risus ab angulo,
Pignusque dereptum lacertis,
Aut digito malè pertinaci.

Latinez ongi dakiena jabetuko da soi-
lik bulkoetan, hitzetan eta esaeretan
olerki bi hauek ahapaldiz ahapaldi du
ten antzaz edo berdintasunaz.

Era berean, latina ezagutzen duenak i-
kusiko du zein ederki dauden euskara-
ra egokituak eta moldatuak egitura ba-
tzu. Adibide bat baizik ez ipintzearr-
en, hasiera-hasierakoa aipatuko dugu e-
san dugunaren erakusgarri:

Vides ut... .. Ara... ..

HORATIUS

LAUAXETA

(zenbaki erromatarrek ahapaldia adierazten dute eta besteek neurtitza)

Vides ut... (I-1)

Ara... (I-1)

nive candidum (ibidem)

edux zuriz, zuri (ibidem)

stet (alta nive) (ibidem)

(Oiz) gorenak (ibidem)

Horatius-ek Soracte mendiagatik
dioena, Lauaxeta-k Oiz-engatik.

geluque/flumina consti

eta ixotzak jorik geldi

terint acuto? (I-3,4)

lats gurenak (I-2)

nec jam sustineant onus/

(ibarretan) edux zurijak/da-

silvae laborantes... (I-2,3)

giez ixara barrijak. (I-3,4)

azkenengo hontan, hitz ezberdinak era-
biliz gogoeta berdintsua idarokitzen
du.

Silvae (I-3)

lerrak mendian (II-4)

Dissolve frigus (II-1)

Axe otzoi, ua basora (III-3)

idea antzekotxua

Ligna super foco/large re-

Ipiñi egurrik naiko sukala-

ponens (II-1,2)

dian (VI-1)

Dissolve frigus (II-1)

Ez ixan otzen ardurarik
(VI-4)

idea ia berdina

ponens(II-1,2)

garrak(VIII-1)

Garrak dirdir begi suteko tres
netan(III-2)

antzerako idea eta berbak

Sabina/...diota(II-3,4)

Lauaxeta-k ez du ardorik ez
edalontzirik aipatzen.Bai,or-
dea,PERTZA albuan,dantzan...
(IV-1)

Permitte Divis caetera(III- Muruko sorgiña/egazka Anboto-
1) ko andere ziztriña(IV-1,2)

Aberrijan txadon donia(VIII-3)

jainkorik ez Lauaxetak;horren ordeez,
mitologiako pertsonaiak eta aberri-
aren txadon donia

Stravere ventos(III-2)

Orri-ikararik ez lertxun ta
urkijetan(III-1)

nec cupressi,/nec veteres
agitantur orni.(III-3,4)

Axe otzoi,ua bäsora(III-3)
Orri-ikararik ez lertxun ta
urkijetan(III-1)

(ventos)aequore fervido/
depraeliantes(III-2,3)

Gorbeyan murruka axe eta e-
durra(V-1)

latinezkoan itsasoa,euskarazkoan Gorbe-
ya;batean haizeak,bestean axe eta edu-
rra.Beste dena ia berdin:depraeliantes=
murruka.

Quid sit futurum cras,fuge
quaerere(IV-1)

Bijarkua itxi etorriari(X-3)

bit, lucro/appone(IV-3,4)

alde ona billau gauzetan...
(XI-3,4)

billau bixitza onen neurri
(XII-4)

lucro appone=alde ona billau

dulces amores(IV-3)

Egun obiaren deya da neguba
(VII-1)

piztu,arren,maitasun subal
(XIII-4)

nec.../sperne puer,neque

gaste.../eta yantzan ta a-
tu choreas(IV-3,4)

Donec virenti canities a-
best/morosa(V-1,2)

gaste ule baltz gara,ez zar
ule zuri(X-2)

ta zartzaro leunak edurrez
beteko dauskubenerako buru-
ba(XIII-2,3)

Lenesque sub noctem susurri Oi yakun samurra,suteko mur-
(V-3) murra(V-2)

idea berdintsuak

Nunc et Campus et areae(V-2) ipuin zarrak betorz sutera!
(III-4)

aintzezko itz sakonak, idazti
zarretan(X-2)

borrokak,soinketa,eta antzeko ariketen ordez
Lauaxeta-k ipuinak eta ele zaharrak amesten
ditu,Horatius-ek ez bezala.

Latinezko azkenengo
ahapaldiak ez du berdin-
tzeikorik euskarazko oler-
kian.

Lauaxeta-k azken bi ahapaldietan Horatius-ena berritzen du, Horatius-en hasierakoa, hain zuzen ere: Ara edur zuriz zuri, Oiz gorenak/eta ixotzak jorik geldi lats gurenak (XII-1, 2); Piztu su gorrija soña berotzeko (XIII-1). Horatius: (I-1, 3, 4); (II-1, 2)

TEXTO-IRUZKINEN

orrialdeak

"JADETSI-EZIÑA".....	7
"LAUAXETA ETA KATULO".....	25
"LAUAXETA ETA HORATIUS".....	35